

KIROL INSTALAZIOETAN HARPIDETZEA

1.1.- Erabiltzaileak eta abonatuak.

1.3.1 Erabiltzailea izateko. Erabiltzaileak izanen dira udal instalazioetara edo kiroldegira unean-unean joaten diren pertsonak, taldeak edo erakundeak, bai kirol gune horiek alokairuan edo lagapenean dituztenean, bai instalazioko guneak partikularki erabiltzen direnean.

1.3.2.- Instalazioa adin txikiko batek erabili behar duenean, ezinbesteko baldintza izanen da bere gurasoetako batek edo tutoreak ere erabiltzailea izan beharko du, eta adin txikikoak egindakoaren ardura bere gurasoarena edo legezko tutorearena izanen da.

1.3.3.- Ikasleak izanen dira udaleko kirol instalazioetara bertan eskaintzen den kirol zerbitzuren batean (ikastaroak, programak, eta abar) parte hartzera joaten diren pertsonak, baita udalak unean-unean antolatzen duen kirol jardueraren batean izena ematen dutenak ere.

1.3.4.- Udaleko Kirol Instalazioen abonua eskatzeko, eta, beraz, abonatua izateko eskubidea dute. Zizur Nagusian erroldatua dagoen oro, betiere, dagokion prezio publikoa ordainduta. Behin-behineko abonatuak izan daitezke: Zizur Nagusiko ikastetxeetan (eskola nahiz institutu) ikasten duten haur nahiz gazte guztiak (senideengana zabal daiteke).

Zizurko Zendea erroldatua dagoen oro, betiere, dagokion kostua ordainduta.

Zizurko Zendea erroldaturik egon gabe, bertako lantegiren batean lan egiten duen oro (senideengana zabal daiteke); aldeztu horren egiaztagiria aurkeztuta. Betiere, aipatu enpresek Zizur Nagusiko Udalaren urteko programekin lotura duten ikuskizunak edo kirol jardunbidea sustatzen edo babesten laguntzen badute, eta interesdunek kostua ordainduta. Beste udalerririk batean kokatuta dauden enpresek Kirol Patronatuaren eta/edo Ardoi Klubaren ekintzak babesten badituzte, abonua izendunak jasoko dituzte: 1.000na €-ko bana, 3.000na €-ko 4na, edo 3 urtez emandako 1.000na €-ko 4na. Abonua horiek abonuen onuradunen kontura izanen dira.

Salbuespenez, eskubide hori Zizurren erroldatuta ez dagoen, baina Ardoi Klubeko taldeetan dabilen norbaiti eman ahal izanen zaio, betiere, horren egiaztagiria aurkeztuta, eta urteko kostua ordainduta.

Zizur Nagusiaren hurbileko udalerrietako herritarren eskaerak aintzat hartu ahal izanen dira, aipatu udalerrietan (Otazu, Belaskoain, eta abar) halako zerbitzurik ez badute. Betiere, horretarako lekurik baldin badago, eta urteko kostua ordainduta.

Senideak (gurasoak eta seme-alabak) aldi baterako abonatuarekin bizi badira, aipatu senideek abonua eska dezakete beraiantzat, dagokien urteko kostua ordainduta. Egoera berean egonen dira ezkontideak edo bikoteak; halakoetan, Zizurren erroldatuta dagoenak abonatua ere izan beharko du. Eskaera horiek sei hilean behin berrituko dira, eta interesdunek kostua ordaindu beharko dute.

Instalazioa adin txikiko batek erabili behar duenean, ezinbesteko baldintza izanen da bere gurasoetako batek edo tutoreak ere erabiltzailea izan beharko du, eta adin txikikoak egindakoaren ardura bere gurasoarena edo legezko tutorearena izanen da.

1.3.4. atalean jasotako balizko guztiek abonua eskaera justifikatuko duen dokumentazioa egiaztatzea beharko dute urtero.